



Elorrio, 2020ko uztailak 02an

Familia agurgarria,

2020-21 ikasturtea irailean hasiko den honetan, honen bitartez lehengo eta behin zuen seme/alabaren heziketan aurrera egiteko Elorrioko Institutuan jarri duzuen konfiantza biziki eskertu nahi dizuegu.

Datorren ikasturtean Elorrioko Institutuan izango zaretenontzat eskutitz honetan oinarritzko informazioa biltzea eta zuei igortzea oso garrantzitsutzat jo dugu.

Alde batetik 2020-21 ikasturterako onartuta dagoen egutegia eta garraioaren ordutegia atxikitu ditugu bi artxibotan. Horrez gain ikasturteko aurkezpen eguna COVID19 ko protokoloari jarraituz nola gauzatu behar dugun azaltzen dizuegu:

- Orain arte maila osoa bildu bada Areto Nagusian , ikasturte hasiera honetan ezin denez pertsona askorekin bilerarik egin, ikasle bakoitza bere taldekideekin eta tutorearekin dagokion gelara zuzenduko da eta bertan egingo zaie harrera.
- Ikastetxeko eraikinaren eskuma aldetik sartuko dira 1 DBH eta 2 DBHra datozen ikasleak eta eraikinaren ezkerreko eskaileratik (gure betiko sarreratik) 3. DBH eta 4DBHko ikasleak. Sartu ahala esango zaie zein geletara zuzendu behar diren. Sarrera hau mailakatua izango da eta beherago azaltzen den orduan etorri behar dira. Sarreran arduradun bat egongo da sarrera bideratzeko.
- Babes neurriak hartu beharko dira:
 - Kalentura badute ezin dira etorri.
 - Beren etxeko norbaitek COVID-19aren diagnostikoa jaso badu, familiak edo tutoreak horren berri emango diete eskolako agintariei eta seme edo alaba etxean mantendu beharko dute.
 - Ikastetxeko sarreran kalentura hartuko zaie
 - Ikastetxera maskara ekarri eta jarri behar dute.
 - Ikastetxeko sarreran eskuragarri izango diren hidro-gelarekin eskuak garbituko dituzte
 - Norberak bere materiala ekarri dezala (zerbait apuntatu nahi badu bere boligrafoa eta orria)

2020-21. IKASTURTEKO AURKEZPENA

AURKEZPEN EGUNA	MAILA/AK	ORDUA	SARRERA
Irailak 8	1DBH	10 :30etan	eraikinaren eskumako atetik
	2 DBH	11:00etan	eraikinaren eskumako atetik
	3 DBH	11:30etan	eraikinaren ezkerreko atetik (betiko sarrera)
	4. DBH	12:00etan	eraikinaren ezkerreko atetik (betiko sarrera)

Zalantzarik izanez gero gure ikastetxeko telefonora deitu 944280138 .

Planteatzen dugun agertoki honetan aldaketak ematen badira informatuta mantenduko zaituztegu. Bukatzeko, uda hasi berri den honetan, Elorrioko Institutuko Hezkuntza Komunitate osoaren izenean gure desiorik onenak helarazi nahi dizkizuegu.

Elorrio DBHko zuzendaritza taldea